

# Funtsezko Baliabideak

Honako giza-baliabideak ditugu:

Aitor: Banatzailea izango da, motor baten bidez banatuko du janaria, oraingoz Zarautzen bakarrik.

Ander: Barrako langilea eta zerbitzaria izango da. Barran inor ez dagoenean, zerbitzari lanetan ibiliko da beste zerbitzariari laguntzen.

Mikel: Teknologiaren arduraduna eta zerbitzaria izango da, tabernaren web gunea, sare-sozialak, telefonoa eta email-a kontrolatuko ditu.

Momenturen batean ez badu lanik zerbitzariari lagunduko die.

Jon Ander: Marketina eta diru kontuak eramango ditu.

Beñat: Sukaldaria izango da.

Baliabide-fisikoak: Tabernarentzako lokala, ordenagailua, motorra, sukaldeko tresnak, janaria, jateko tresnak, barrako tresnak.

Finantza-baliabideak: Gure aurrezkietatik aterako dugu dirua jatetxe bat erosteko, sukaldeko tresnak Bosch-i erosiko dizkiegu eta janaria Gesalagari.